

# EL FUTURO DE LA CIVILIZACION CAPITALISTA

Immanuel Wallerstein  
Icaria argitaletxea, Bartzelona, 1997

Liburutxo honek oihartzun eskasa izan du, nire ustez, Espainiako ohiko komunitate intelektualaren aldetik. Egia esan, ez dut uste erabateko mai-sulan baten aurrean gaudenik, baina, hala ere, egin zaion kasu eskasa harritzekoa da. Egia da gaur egun *kapitalismo* hitza erabiltzea ez dagoe-la inondik ere modan, erregimen kolektibisten porrotaren ondoren, *pentsakera bakarra* delakoaren nagusigo-testuinguru honetan hain zuzen ere –termino hau, batzuetan, gehiegikeriaz erabiltzen ari dela uste badut ere<sup>1</sup>; izan ere, sistema ekonomiko honenganako begikotasunik ez duen hainbat pentsalarik ere berau erabiltzeari utzi diola dirudi, euren ideien zabal-kuntzaren kalterako izan daitekeelakoan-edo<sup>2</sup>.

Garai batean, ordea, Wallerstein-en lanei garrantzi nahiko handia ematen zitzaion, soziologo eta, batez ere, historialarien artean. *The modern world-system* bere proiektu zabalaren lehenengo aleek eztabaida, kritika baina baita laudorio ugari ere sortu zuten: bertan sistema kapitalistaren

mundu mailako hedapenaren ildo nagusiak “laburbildu” nahi ziren, gaur eguneko mundu-sistemaren sustraiak eta bilakaera azaltzeko, bibliografi-masa trinko batean oinarriturik<sup>3</sup>. Ikuspegi globalizatzaile honen iturri nagusiak bi ziren: alde batetik, azpigarapenaren garapenaren edo dependentziaren teoriak (A. Gunder Frank, S. Amin...) eta, beste aldetik, Braudel-en eskema historiografikoa, batez ere *Civilisation matérielle, économie et capitalisme* liburukoa. Marxismo heterodoxo batez jantzita (“neo-smithtarra”, Brenner-en ustean<sup>4</sup>), kapitalismoaren hazkunderen nazioarteko erlazio eta elkarreragiteak (batez ere merkataritza ezberdin-dua dela medio) azpimarratzen ditu, ekonomia nazional edo europarretan oinarrituriko ikuspegi zabalduagoaren aurrean. “Erdigune-periferia” eskema analitiko aberasgarriaren garatzailerik nagusienetakoa, berarentzako XVI. mendetik aurrera kapitalismoaz hitz egitea posible da eta, are gehiago, mundu-kapitalismoaz; beronek eta nazioarteko elkartruketeei eman dion protagonismoak jasan dituzte Wallerstein-en kritikoen erasorik bortitzenak.

1. “Pentsakera bakarraren” aurreneko definizio errepikatuegirako, ikus, adibidez, N. Chomsky / I. Ramonet, *Cómo nos venden la moto. Información, poder y concentración de medios*, Bartzelona 1995.

2. Adibide on bat dugu, esaterako, J. Albarracín ekonomilari marxistaren *La economía de mercado* (Madril 1994) eskuliburu bikaina baina (izenburuari dagokionez, behintzat) kontzienteki leungarrian.

3. I. Wallerstein, *El moderno sistema mundial I. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI*, Madril 1979; eta *El moderno sistema mundial II. El mercantilismo y la consolidación de la economía-mundo europea, 1600-1750*, Madril 1984 [jatorrizko argitarapenak 1974 eta 1983].

4. Ikus Errota taldea, “Kapitalismorantzako trantsizioa zertan den: Brenner-en eztabaida”, in *Historia eta gizarte zientzien urtekaria* III, 169-197, Bilbo 1990, batipat 179-186 orr.

Hala eta guztiz ere, bere lanen garrantzia eztabaiaezina zen, halako ikuspegi orokortzailerik aurkitzea, zaila izateaz aparte, beharrezkotzat hartzen baitzuen komunitate zientifikoaren multzo handi batek. Wallerstein-ekin ados ez dagoen E. R. Wolf-en hitzetan:

Esta economía mundial [Wallerstein-ek deskribatzen diguna], que se origina a fines del siglo XV y principios del XVI, constituye un mercado mundial al que caracterizan divisiones mundiales del trabajo. Las firmas (sean individuos, empresas o regiones) se presentan en este mercado a cambiar las mercancías que han producido, de lo que esperan lograr una utilidad. (...) Las utilidades las generan los productores primarios, a quienes Wallerstein llama proletarios, sin importar la forma en que su trabajo sea movilizado. Los capitalistas, a quienes Wallerstein clasifica como burgueses sin importarle cuál sea la fuente de su capital, se apropian de esas utilidades. El crecimiento del mercado y la resultante división mundial del trabajo generan una distinción básica entre las naciones del centro (...) y la periferia (...). Las dos están ligadas por un "intercambio desigual". (...) En el centro las mercancías se producen principalmente por medio del trabajo "libre" remunerado por un salario; en la periferia las mercancías se producen principalmente por una u otra clase de trabajo forzado. (...) Tendremos ocasión de examinar críticamente algunas de estas proposiciones. *Empero, lo que es importante en la obra de (...) Wallerstein es que han sustituido los estériles debates sobre modernización con una exposición elevada y orientada*

*teóricamente de cómo el capitalismo evolucionó y se propagó; fue una evolución y propagación de relaciones entrelazadas pero diferenciadas*<sup>5</sup>.

Baina azken urteotan Wallerstein eta New Yorkeko *The Fernand Braudel Center*-eko bere kideek lanean tinko jarraitu badute ere, ez dirudi horrenbesteko protagonismoa lortu dutenik; esaterako, nik dakidala, mundu-sistemari buruz idatzi duen hirugarren alea ez da oraindik gaztelaniara itzuli<sup>6</sup>. Dударik gabe, xehetasunezko kritika asko jaso dute hiru liburukiek (normala den bezala bigarren mailako iturrietan oinarritutako lan orokortzaile eta hain handinahiko bate kasuan), baina marxismoaren eta orohar pentsakera kritikaren krisia garrantzi-galeraren erantzule nagusia goa litzatekeela iradokitzen ausartuko nintzateke<sup>7</sup>.

Goazen harira. Wallerstein-en liburuaren mamia data ezberdinetan idatzitako hiru artikulu independentek osatzen dute baina, hala eta guztiz ere, ez da ohiko artikulu-bilduma desegituratu horietako bat, hirurek diskurtso trinko eta elkarren osagarri bat eskaintzen baitute. Lehenengo atala «Zein zentzutan hitz egin dezakegu zibilizazio kapitalista batetaz?» dugu, 1984eko hitzaldi bat hain zuzen ere. Kapitalismoaren dinamikaren natura edo izaera, eta batez ere etorkizun posibleak ditu eztabaia dagai. Horretarako, eta xumeki bada ere, kapitalismoa berak garatutako gizarte sistemen klasifikazioan kokatzen du (alde batetik,

5. E. R. Wolf, *Europa y la gente sin historia*, Mexiko 1987, 38 (letra etzanak nireak dira).

6. I. Wallerstein, *The modern world-system III. The second era of great expansion of the capitalist world-economy, 1730-1840s*, San Diego 1989.

7. Izan ere, galdera, ikuspuntu "kritikotik" behintzat, pobrezia eta azpigarapena zergatik eta nola garatu diren izan bada (galdera honi erantzun nahi izan diote, azken finean, Wallerstein eta antzeko askoren ahaleginek), orain galdera-ikurra "arrakasta ekonomikoaren" zergatietara eramaten da, A. Peyrefitte saiozile eskuindarrak *Du «Miracle» en économie* (Paris, 1995) liburu esanguratsuan egiten duen bezala.

mini-sistemak eta, bestetik, mundu-sistemak, zeinak, bestalde, bitan bana baitaitezke: mundu-inperio eta mundu-ekonomietan): zentzu honetan, kapitalismoak planeta osoaz jabetu den mundu-ekonomia bat osatuko luke<sup>8</sup>. Izan ere, bai atal honetan bai hurrengoan 1983an idatzitako *Historical capitalism* liburu motz baina konplexuan azaldu-tako teorizazio aberatsak laburbiltzen dizkigu, eta ildo honetatik sakondu nahi duenarentzat ezinbestekoa izango da lan horren azterketa<sup>9</sup>.

Bigarren atala «Zibilizazio kapitalistaren balantze bat» izenekoa da eta, hurrengoa bezala, Hong-Kongen 1991an emandako hitzaldia dugu. Bertan sistemak ekarri dituen emaitza positibo eta ezezkorrak sailkatzen dira, hasiera batean lau parametroren arabera: ia zernolako arrakasta izan duen gaixotasunaren aurkako borrokan, gosea gutxitzeko, barne-gatazka edo gerra zibilak ekiditeko eta, azkenik, estatuen arteko gerrak mugatzeko. Kapitalismoaren defendatzaileek dioten bezala,

El capitalismo, al aumentar la eficiencia de la producción, aumenta la riqueza colectiva de forma espectacular. Incluso si esa riqueza se distribuye de forma poco igualitaria, hay más que suficiente como para asegurar a cada uno que recibirá por encima de lo que hubiera sido posible bajo otros sistemas históricos anteriores. (...) Gracias [a lo que] han podido decir no sólo que el sistema capitalista es diferente y mejor que todos los otros sino también que tenían razón al afirmar que era el único sistema «natural» (44. orr.).

Printzipioz dirudien baino sakontasun eta lotura gehiago duten aipatu lau parametro horien azterketan oinarriturik, beraz, Wallerstein ondorio kontraesankorretara heltzen da, kapitalismoaren defendatzaileen segurtasun hura kolokan jartzeko asmoz, honetarako iruzkin honetan aurreratuko ez ditudan maila ekonomiko, politiko eta sozialeko argumentu ezberdinak erabiltzen dituelarik. Baina, «Apokalipsiaren Lau Zaldun» klasiko hauen aurkako borrokan kapitalismoak izan dituen arrakasta eta porrot erlatiboak azaldu ondoren, koantifikazio zailagoko beste bi elementu ere aztertzen du: gizabanakoaren bizi-kalitatea eta gizartearen bizi-kalitatea. Eta, kasu hauetan, emaitzak ez dira bereziki baikorrak. Gizabanakoaren bizi-kalitateari, hots, biziraupenerako oinarritzko premiez haraindiko ongizateari dagokionez, egia da kapitalismoan garapen nabarmena gertatu dela, baina baita ongizate horren banaketa ere inoiz baino ezberdinuagoa dela, hau frogatzeko kontsumo orokorraren, turismoaren eta hezkuntzaren adibideak aztertzen dituelarik. Gizartearen bizi-kalitatearen atalean ere, gauzak ez dira sistemaren defendatzaileek uste bezain garbiak. Zibilizazio kapitalistaren ikurren krisiaz hitz egiten digu hemen: zientzia, giza-eskubideak, meritokrazia eta demokrazia, kapitalismoak gorapatutakoak baina kapitalismoaren dinamikak berberak galbideratuak, hein handi batean behintzat. Beraz,

Está claro que el tamaño de los estratos privilegiados como porcentaje del total ha crecido de forma significativa bajo el capitalismo histórico. Y

8. Garrantzitsua da, Wallerstein-engan, "mundu-ekonomia" eta "munduko ekonomia" kontzeptuen arteko bereizketa: Erromako Inperioak, esaterako, mundu-ekonomia erlatiboki independente bat osatuko zukeen; kapitalismoa beste mundu-ekonomia bat izango litzateke, mundu osoko ekonomia izatera heldu den lehenengoa eta bakarra hain zuzen ere.

9. I. Wallerstein, *El capitalismo histórico*, Madril 1988.

para esa gente, el mundo que conocen es mejor en su conjunto que el que cualquiera de sus correspondientes conoció con anterioridad. (...) Pero para el otro lado del espectro, entre el 50 y el 85 por ciento de la población mundial que no es receptora del privilegio, el mundo que conocen es casi ciertamente peor que el que cualquiera de sus correspondientes conoció con anterioridad (66. orr.).

Halamoduzko balantze honen ondoren, eta liburuari izenburua eskainiz edo, «Kapitalismo historikoaren etorkizun-aukerak» atala irakurriko dugu. Ez da inondik ere futurismo ahalegin bat: kapitalismoaren dinamika kontraesankorretan oinarrituz, egileak kapitalismoaren krisia iragartzen digu, eta krisi horrek zein emaitza orokorretara eramán dezakeen zirriborrazera ausartzen da. Dinamika kontraesankor horiek ondokoak izango liriateke: alde batetik, “metaketaren dilema” bezala aurkezten diguna, etengabeko hazkunde-behar suntsitzailea eta gaur egungo ekonomiaren uhin-izaera esplikatzeaz gain, merkatu- eta monopolio-zaletasunaren arteko borrokaren gairantz eramaten gaituena, hemen ere kapitalismoak bere “printzipio” liberalak nola apurtzen dituen erakusten zaigularik<sup>10</sup>. Beste aldetik, “legitimazioaren dilema” izango genuke, Frantziar Iraultzak eskainitako eta modu ezberdinetan gauzatutako herri-subiranotasunaren kontzeptuaren (eta beronen promesen) krisiarena hain zuzen ere, bai Hegoaldeko nazio-askapen mugimenduenean, bai bloke kolektibistako partidu-estatuenean, bai eta Erdialdeko keynestarzaletasun-sozialdemokraziarenean ere islatu dena. Azkeneko dilema, Wallerstein-

entzat, kapitalismoak berak sustatutako unibertsalismoaren eta sexismo-arrazakeri binomioaren arteko tentsio geroz eta handiagoak eraturitako izango litzateke. Beraz, egileak dioen bezala,

La civilización capitalista ha sido elaborada mediante contradicciones, lo que no es extraño: todos los sistemas históricos tienen contradicciones. En el caso del capitalismo histórico, hay tres contradicciones particularmente importantes que son las que he intentado describir brevemente. La virulencia de cada contradicción ha sido controlada históricamente mediante mecanismos de ajuste. Pero en cada caso, estos mecanismos de ajuste han sufrido su propia tensión. Podríamos decir que la acumulación de dichas tensiones significa que el sistema-mundo moderno está llegando a una situación de crisis sistémica si no es que ya lo está (86. orr.).

Krisi orokor honen ezaugarri ezberdinak zerrendatu ondoren, emaitza posibleen artean (eta gehiago izan daitezkeela azpimarratuz) «mundusistemaren historiaren argitan» hiru aukeratzen ditu. Lehenengoa, subiranotasun zatituko mundu bat, autarkia handiko unitatez osaturikoa baina desberdintasuna mantenduko lukeena (neofeudalismo deitzera ausartzen da). Bigarrena 1930. hamarkadakoa baina gizarte-oinarri finkoagoak izango lituzkeen “faxismo demokratikoaren” antzeko zerbait (desberdintzailea hau ere). Eta, azkenik, jadanik sozialista edo komunista izendatzera ausartzen ez den «modu erradikalago batean orokortutako mundu-ordenua, oso deszentralizatua eta berdintzailea».

10. Gaur egungo kapitalismoaren eta benetako merkatu aske baten funtzionamenduaren arteko kontraesan sakonei dagokionez asko idatzi da, baina azken garai hauetan argitaraturiko adibide on eta ulergarria ondokoa da: N. Chomsky, “La pasión por el mercado libre”, *Sediciones*, 7, Hondarribia 1997, 71-106.

I. Wallerstein-en testuaren osagarri bezala argitaletxeak Salvador Giner-en sarrera moduko ohikeriazko ariketa nahiko interesgabekoa eskaintzen digu eta, halaber, askoz ere epilogo aberatsagoa, J. M. Tortosaren eskutik: bertan Wallerstein-en ibilbide intelektualaren laburpen batekin batera, bere produkzio bibliografikoaren ildo nagusiak aurkezten dizkigu, nahikoa modu erabilgarrian.

Lehenago esan dudan bezala, ez dut uste nahitaezko obra baten aurrean gaudenik. Lanaren jatorria dena delakoa da (barne-koerentzia handia badu ere, egileak ez zuen liburu bateratu bezala prestatu), ateratzen dituen ondorioekin (hots, etorkizun posibleekin) ados egon zaitezke ala ez, eta askotan erabiltzen duen abstrakzio maila gehiegizkoa suerta daiteke, batez ere Wallerstein-ekin lehenengoz topo egiten duenarentzat (soziologia mundukoek neologismoak sortzeko edo eguneroko hizkuntzan erabiltzen ditugun hitzei esanahi ezberdin edo “zehatzagoak” emateko duten joerak irakurketa oztopa dezakeelarik). Zerk eraman nau, beraz, aipamen (baikor) hau egitera?

Alde batetik, nolabait kapitalismo hitzaren berreskurapena aldarrikatzen duen liburua izateak. Ez kontzienteki, Wallerstein-ek ez diolako inoiz erabiltzeari utzi, baizik eta berak, beste askok bezala, proposatzen diren beste tresna kontzeptual batzuek (“modernizazioa” kasu) baino egokiagoa izaten

jarraitzen duela uste duelako. Kapitalismoa sistema historiko bezala aurkezten zaigu, ez gizakiaren (hots, norbanakoaren) erlazio ekonomikoen egoera natural gisa, eta hau ez da meritu txikia, historiaren amaiera aldarrikatzen omen den garai hauetan<sup>11</sup>. Horretarako egileak bitxia dirudien sistema erabiltzen du: kapitalismoaren etorkizun perspektibez aritzen da, bai, baina –azken emaitzekin ados egon ala ez– “aitzakia” horrekin kapitalismoaren funtzionamendu historikoaz adierazten dizkigun ezaugarri, teorizazio eta lan-hipotesiak bereziki esanguratsuak dira, laburpenean azaltzen saiatu naizen bezala. Bitxia *dirudiela* diot Wallerstein-ena ez delako antzeko diskurtso eta xedeekin argitaratzen den lehenengo lana; hortxe daukagu, esaterako, orain dela ez hainbesteko R. Heilbroner ekonomilari progresistaren *Twenty-first century capitalism* liburua: datorren mendeko kapitalismoaren ezaugarriak zeintzuk izan daitezkeen argitu nahian, gaur egungo kapitalismoaren ibileraz jabetzeko sintesi izugarri on bat jasotzen dugu<sup>12</sup>.

Beste aldetik, giza-historia ikusteko era antideterminista bat eskaintzen saiatzen da *El futuro de la civilización capitalista* hau. Egilearen sena historiografia liberalak eta marxista ortodoxoak finkatutako progresuaren autopista zabalaren sahiestezintasunetik urrun dago: hau ez da bere aurreko lanetatik desberdintzen duen berrikuntza bat, nahiz eta idatzi honetan inon

11. Geroz eta gutxiago aditzen den kontzeptu honen kritika sakon baterako, ikus P. Anderson, *Los fines de la historia*, Bartzelona 1996.

12 R. Heilbroner, *El capitalismo del siglo XXI*, Bartzelona 1996. Antzeko ildotik, baina gizakiek Historiari buruz izan ditugun ikuspegi aldakorretan zentratuagoa (eta, beraz, oso interesgarria historialarientzat) dugu bere *Visiones del futuro. El pasado lejano, el ayer, el hoy y el mañana*, Bartzelona 1996. Kapitalismoa kontzeptu bezala erabiltzen jarraitzearen aldeko beste jarrera baterako, ikus J. Estefanía, *¿Qué era? ¿Qué es? El capitalismo*, Bartzelona 1997.

baino argiago azaltzen duen<sup>13</sup>. Hau gaur eguneko historialariontzako ikaskizun garrantzitsua delakoan nago, gure ikerketa eta batez ere gure azalpenak aurrejuzkuz garbitzeko tresna erabilgarria bilaka baitaiteke. Wallerstein-en beraren hitzetan

La teoría del progreso, tanto en su versión liberal como en la marxista, ha argumentado la inevitabilidad (...) del logro de una realidad democrática e igualitaria. Sin duda que rechazo cualquier concepto de que eso es históricamente inevitable. No veo ninguna prueba empírica que lo avale en modo alguno. Y la razón es que no creo que ninguno de los sucesivos sistemas históricos hasta ahora conocidos haya sido más «progresivo» que su inmediato antecesor. En concreto, no creo que la economía-mundo capitalista haya representado un progreso sobre sus predecesoras. En el mejor de los casos, no ha sido peor (33-34. orr.).

Azkenik, honekin guztiarekin loturik, eta liburuak eskaintzen dituen “proposamen” edo “iradokizun” ezberdinak agortzen ez ditudala jakinda ere<sup>14</sup>, li-

buru honek planteiatzen duen krisiaren konzientziaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Dударik gabe, hau ez da gai berria: azken urteotako ekonomilari eta pentsalari kritikoez azken hogeitabost urteotako ibilbide kapitalistaren krisiaz hitz egin dute, ahots hauek nahikoa minoritarioak izan badira ere itsasgora neoliberalaren testuinguruan. Bereziki gogotsuak izan dira, lan honetan, lehengo ortodoxian kokaturik bide zeuden keynesiar kutsuko hainbat egile, soluziobide tatcherzale-reaganzaleen ezaugarrien eraispena aurrera eraman nahi izan dutenak, sistemaren bestelako oinarriak gehiegi ukitu gabe<sup>15</sup>. Wallerstein-en ikuspuntua gaur egungo krisiari dagokionez, ordea, ezberdina da: esan bezala, egile honentzat krisi hau sistemikoa da, eta kapitalismoak bere zabalkuntza-aukerak gainditu dituela sostengatzen du, era honetan gure gizarte eta ekonomiaren funtzionamenduaren kritikari zorrotzenekin bat egiten duelarik: hala nola marxismo ortodoxoen hondar ezberdinekin<sup>16</sup>, lanaren problematika garaikideaz arduratuta agertzen direnekin<sup>17</sup>, estatuba-

13. Ikus, batipat, *El capitalismo histórico*, op. cit. Bertan, determinismoa arbuaitzen badu ere, baikorrago agertzen da sozialismoaren gauzapen-aukerei zegokienez, cfr. 85 hh. Sozialismo “errealaren” krisia (egilea sobietar tankerako erregimenekin beti ere kritikoa izan bazen ere) nabaria da eguneratutako diskurtsoan.

14. Interesgarria suerta daiteke, nazionalismoaren eta kapitalismoaren arteko loturei dagokienez, «zibilizazio» eta «zibilizazioak» kontzeptu ezberdinen garapenari eskaintzen dion tarte, ikus batipat 20-26. orr. Arazo hauei buruzko bere ikuspegia sakondu nahi duenarentzat ikus E. Balibar eta I. Wallerstein, *Raza, nación y clase*, Madril 1988.

15. Ahots hauen artean nabarmenduko ditut, besterik ez bada, aldizkari honen aurreko zenbaki batean aipatu nuen D. Anisiren lana (*Uztaro* 17, 181-186), Estefanía beraren lan “errebisionistak” edo J. K. Galbraith-en *Una sociedad mejor*, Bartzelona 1996.

16. Aurreko ohar batean azaldutako Albarracín-en lana bertan koka dezakegu, beste batzuekin batera. Azken aldiko gutxi batzuk aipatzearen, ikus P. Montes, *El desorden neoliberal*, Madril 1996 eta *Golpe al estado del bienestar*, Bartzelona 1996, eta ortodoxia handiagoko Editions Correspondances Révolutionnaires, *La seconde crise generale du capitalisme*, Brussela 1995.

17. Cfr. A. Gorz, *Métamorphoses du travail. Quête du sens. Critique de la raison économique*, Paris 1988; G. Aznar, *Trabajar menos para trabajar todos*, Madril 1994; J. Riechmann eta A. Recio, *Quien parte y reparte... El debate sobre la reducción del tiempo de trabajo*, Bartzelona 1997. Begirada deskriptibo eta “literarioago” baina dudarik gabe eraginkor baterako, ikus V. Forrester, *El horror económico*, Buenos Aires 1997; kritika gogor hauen aurrean ikuspegi neoliberal itxiak pairatzen dituen zorabio eta ezintasunaren adibide gisa, ikus M. Vargas Llosak Forrester-en lana kritikatzeko idatzi duen “La violencia de la calma” izenburuko ahalegin patetikoa (*El País*, 1997-XI-2, 13-14).

tuar ekonomilari “erradikalekin” (Bowles, Edwards, Gordon, etab.) eta kutsu ekologistako ekonomilariekin<sup>18</sup>. Ikuspegi hauek alternatiba ekonomiko garbirik eskaintzen ez dutela berehala salatzen diotenei (somatzen ditut irrifar maltzurak...) zera esango nieke: izandunaren kritika lehenengo eta ezinbesteko pausua dela hautabi-deak eskaintzeko mementuan. Alde honetatik Wallerstein-en *Zibilizazio kapitalistaren etorkizuna* hau lan itxaropentsu bezala agertzen zaigu: produkzio moduen segida automatikoaren

ezinbestetasunetik at, gizarte-antolaketa berdintzaileago baten *aukera* marrazten du. Horretarako garrantzitsua da azkeneko bost-hiru mendeetan nagusi izan diren kapitalismo hitzarekin laburbil ditzakegun antolaketa era aldakorren gora-behera eta ezaugarriak ondo ezagutzea. Bide honetan Wallerstein-en liburu txiki hau beste katebegi erabilkor bat besterik ez dugu. Akatsak eta gutxi, ez da gutxi.

*Iban Zaldúa*

---

18. Honi buruz hitz egiten dut “Ekonomia versus ekologia” nire lan argitaragabearen. Laburpen baterako, ikus “Ekonomia versus Ekologia: Historiarentzako irakaspenak”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-VIII-6, 3.